



Donostiako Udalea  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Euskara Zerbitzua

**Kultura eta aisia  
euskaraz  
Donostian**

### antzerkia eta Dantza

- **Kiliklon, DJ Porru**  
Sagasti Eder plaza  
(Intxaurreondo)  
Ekainak 26 • 18:00
- **Potxin eta Patxin**  
Oletako plaza  
Ekainak 26 • 18:00
- **Kondaira baten truke. Patata tropikala**  
Igeldoko plaza  
Ekainak 30 • 15:30

### musika

- **Luberri Abesbatza organo kontzertuan**  
Ibaetako Espiritu Santuaren parrokia  
Ekainak 25 • 19:30
- **Abesbatzen emanaldia**  
Igeldoko Eskola  
Ekainak 25 • 19:00

### zinema

- **Ni, Urumea (2016)**  
Etxarriene  
Ekainak 28 • 19:00
- **Kirikou eta Basapiztiak (Kirikou et les Bêtes Sauvages, 2005)**  
Aieteko Kultur Etxea  
Ekainak 29 • 11:00
- **Ni, Urumea (2016)**  
Loiola Kultur Etxea  
Ekainak 29 • 19:00
- **Ni, Urumea (2016)**  
Antzoki Zaharra  
Ekainak 30 • 21:00

### erakusketak

- **Bisita gidatua: 1516-2016. Bake-itunak**  
San Telmo museoa  
Ekainak 25 • 12:30
- **Kubo Kutxa erakusketaren bisita gidatua - Gonzalo Chillida**  
Kubo Kutxa Aretoa  
Ekainak 25 • 18:30

### literatura

- **Poesia eta Pentsamendua 2016**  
Club aretoa - Victoria Eugenia antzokia  
Ekainak 27 • 19:30

### kultura +

- **Artista gazteak**  
Casares kultur etxea  
Ekainaren 27tik uztailaren 1era • 10:00-13:00

### euskara +

- **101 L. Donostiako hizkuntza jasotzen**  
11:00-14:30, 16:00 - 18:00  
Ekainak 28 • Elhuyar plaza  
Ekainak 29 • Sagues  
Ekainak 30 • Amarako Bus Geltokia

Bilboren soinu-erreturatua egin dute Maialen Lujanbio bertsolariak eta Xabier Erkizia soinu artistak 'Gurdi irrintzi orbaindua' piezan. Bilbon aurkeztu dute lana zuzenean.

## Hiri bat belarriz paseatzea

Iñigo Astiz Bilbo

**H**iri hau begientzat egina da, begiek agintzen dute hemen: usainak, airea, soinuak ez dira erreturuetan azaltzen». Bilbo hartu dute ardatz Maialen Lujanbio bertsolariak eta Xabier Erkizia soinu artistak *Gurdi irrintzi orbaindua* irrati pieza sortzeko, eta, hain zuzen ere, hiriaren soinu erreturatu bat egitea izan da haien asmoa. Duela hilabete Bilboko Azkuna Zentroak antolatutako Prototipoak jaialdiak irauin bitartean hirian egindako grabazioak eta orduan hartutako oharrak bil-tzen ditu lanak, eta belarrietarako mapa bat sortu dute harekin. Belarrietarako Bilbo bat. Asteazkenean aurkeztu zuten jendaurrean Consonni ekoizpen etxeak Azkuna Zentroan antolatutako La Pùblica irrati magazinean, eta Danelle Sarriugarte idazleak proiektuaz egindako galderak ere erantzun zituzten.

Catherin Lee Bates abestigile iparramerikarrak 1850ean idatzitako testu bat du abiapuntu Erki-

ziaren eta Lujanbioren piezak. Idazleak garai hartako Bilbon ikusi eta entzundakoaz egiten duen deskribapenak abiatu zuen proiektua, eta deskriptu hori hitzez hitz irakurri abiatu zuten horregatik beren pieza. «Baserritarrek bi zurezko gurpil soilen gainean doazen idi orga pitsutsuak gidatzen dituzte (...). Estructura guztia, gurpileko burdinazko eraztunak eta iltzeak ezik, egurrezkoa da, eta bai ardatzak, nahi hari lotuta doazen gurpilek biratzerakoan kirrinka ikaragarria sortzen dute. Baserritarrek maite du soinu hori. Bere ustez, kirrinka idien gustukoa da, eta, gehienbat, deabrua uxatzen du».

Eta soinu horrekin dator bi munduren arteko talka, zeren eta industrializazioerantz zihoan hiriak debekatu egin baitzuen zarata hori. Galarazi egin zieten sarbi-dea idi gurdiei. Isuna? 25 pezeta. Batesen hitzak berriz: «Euskaldun haietako batek goizean ernatu, uztarririk ederrena aukeratu, idiei jarri, beren begi pazienteak tapatzen zituzten gorri koloreko larruak arreta handiz ezarri eta herrirako bidea hartu zuen. He-



Xabier Erkiziak egurrezko gurdi bat paseatu zuen Bilbon. AZKUNA ZENTROA

rriko etxera iritsi zen xuxen-xuxen. Bertan 25 pezetako isuna ordaindu, eta egun guztian bere gurdia kalez kale paseatu zuen denei kirrinka entzunaraziz».

### Pulunpak errepedean

Erkiziak irakurri zituen idazlearen hitzak emanaldian, eta gurdi zahar baten kirrinka entzun zitekeen atzealdean. Izan ere, Batesek deskribatutako gertakari hura berregitea izan zen Erkiziak Prototipoak jaialdirako egindako proposamenetarikoa bat: bi idik tiratutako egur hutsezko gurdi zahar bat paseatu zuen soinu artistak Bilboko kaleetan maiatz amaierako egun batez, eta orduan egindako grabazioak baliatu dituzte emanaldirako. Kirrinka, apatxen kolpeak errepedean, zintzarrien pulunpa...

Ez dute gurdieren grabazioa soilik erabili, ordea; astebeztan hirian bildutako beste hots batzuk ere baliatu dituzte hiriarren soinu kronika egiteko: txoriak, garbitzaileen kamioia, Kale Nagusiko manifestazioak, motorrak, solasaldiak, motorrak, elektrozitateak, motorrak... Ahots gutxi. Eta horregatik Lujanbioren apuntea: «Jarri belarriak erne, entzun, inork entzuten ditu ahotsak? Ez dakit inork entzuten

dion inori». Eta borobilago: «Ziudade bat ez da ahotsaren eskalakoa. Ez du ahotsik entzuten. Ez daki. Ez dago entzuteko egina».

Eta hizkuntza paisaiarentzako tarte bat ere bai. «Hizkuntzak ere entzuten dira. Gaztelera nagusiki. Hizkuntza afrikarrak zonaldeka. Eta ingelesa. Ingelesa hiriarren gogoan. Ingelesa proiektu berrien tituluetan. Ingelesa eraikin berrien izenetan».

Pozik agertu ziren bi sortzaileak egindako ikerketa lanarekin. Lujanbiok azalpena Sarriugarteri: «Hiriaren geruza ezberdinak entzutera jartzea izan da ariketa nire kasuan, eta soinu horien zergatia aztertzean hiriarren egiturarekin, planteamenduarekin eta politikarekin lotura duten hainbat eta hainbat kontu ateratzen dira».

Prototipoak jaialdian bertan aurkeztu zuten bi sortzaileek bertan egindako lanaren lagin bat, baina asteazkenean eman zuten lehenengoz material horrekin sortutako irrati pieza zuzenean. Emaizarekin pozik bi egileak, eta baita bildutako material multzo handiarekin zerbaite gehiago egiteko gogoz ere. «Ez goaz promesak egitera, baina material asko dugu bilduta, eta posible da zerbaite garatuagoa egitea».

